



22.11.15etik 22.11.18ra


# Liburutegi Laborategiak

Liburutegian ikastea... egiten, ikertzen,  
irakurtzen, jolasten eta IKTekin.

Liburutegietan elkarlaneko proiektuak  
garatzeko laborategia.

# Aurkibidea

- 
- 01 **Zer da *Liburutegi Laborategiak* proiektua?**
- 
- 02 **Hautatutako proiektuak**
- 
- 03 **Sarrera  
—hitzaldia**
- 
- 04 **Laborategiko taldea**
- 
- 05 **Agenda**



# Zer da *Liburutegi Laborategiak* proiektua?

*Liburutegi Laborategiak* (LABBBak) Liburuaren eta Irakurketaren Sustapenerako Zuzendaritza Nagusiaren proiektua da, Liburutegien arteko Koordinaziorako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez gauzatzen dena. 2017az geroztik, herritarren parte-hartzeak eta liburutegiek bat egiteak eskaintzen dituen aukerak aztertzen dituzten jarduerak eta ekitaldiak antolatzen ditu.

Ekintza horietako bat herritarren laborategi hau da. Aurtengoa bigarren edizioa izango da, oraingo honetan, Medialab Tabakalerarekin batera. Proiektuak elkarlanean prototipatzeko lantegia da, eta liburutegi publikoek laborategi hiritar gisa funtzionatu dezaten forma berriak ikertzeko helburua dauka. Sorkuntza-lekuak, esperimazio kolaboratiboa eta ikaskuntza partekatua ahalbidetzen duten guneak.

Horretarako, elkarlanean garatzeko proiektuen deialdia ireki da. Hau da, hautatutako proposamenen sustatzaileek, eta proiektuak gauatzeko interesa duten pertsonak, elkarlanean jardungo dute egitasmoak gauzatzen.

Deialdia Medialab Tabakaleran (Donostia) 2022ko azaroaren 15etik 18ra bitartean egingo den tailerrean parte hartu nahi duten liburutegien munduko eta beste esparru batzuetako pertsonak zuzenduta dago.

Tailerrean, 60 pertsona inguru (sustatzaileak, laguntzaileak eta aholkulariak) bilduko dira Medialab Tabakaleran hautatutako 5 proiektu garatzeko. Proiektu horiek liburutegiek hezkuntza-ekosistemako eragile gisa duten zeregina sustatzera bideratutako proposamenei irekitako deialdi baten bidez hautatuko dira.

# Hautatutako *proiektuak*



## ¿Paremioqué? Refranes que nos acompañan y nos “apañan”

Chinchilla de Montearagón — *Albacete*

Paremiologia atsotitzak, esaerak eta erran zaharrak aztertzen dituen diziplina da; hizkuntzaren ulermen maila handiagoa lortzen laguntzen du, eta, ondorioz, irakurketaren sustapenarekin zuzenean lotuta dago. Liburutegiak, etengabeko prestakuntza lortu nahian, funtsezko sortzaile eta bitartekari bihur daitezke diziplina hurbil bezain ezezagun hori aztertzeko. Aipatutako proiektuak proposatzen du liburutegietatik esaera zaharrak protagonista izango dituzten baliabide eta tresna digital zein fisikoak jartzea gure erabiltzaileen eskura.

---

## Descifrando las imágenes

Sant Pere de Riudebitlles — *Tarragona*

Kultura-kontsumoaren ohiturak aldatzeak nerabeek kontsumitzen dituzten eduki gehienak irudi formatua izatea eragin du (estatikoak zein mugimendudunak). Gazteak ikus-entzunezko hizkuntzan trebatzea da asmoa, jasotzen dituzten mezuak nola transmititzen diren eta forma edukia bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa dela jakin dezaten. Irudi bat manipulatuta dagoela detektatzea, jakitea muntaketa zehatz batek nola eragiten dien gure emozioei, zergatik erabiltzen diren kolore batzuk eta ez beste batzuk, zer islatzen duten bideoetan ikusten ditugun pertsonen jarrerak... Horrek ikusle kritiko gisa prestatzeko balioko du.

---

## Espacio de creación para proyectos hechos a mano

*Bartzelona*

Proiektu honek herritarrentzat eta auzoko kolektiboentzat elkarlanean sortzeko eta laguntzeko gune bat diseinatzea proposatzen du, gure eskuekin

dakigun edo egin dezakegun guztiaren bitartez. Asmoa da herritarrei gune ireki bat eskaintzea, beren eskuzko sorkuntzetarako beharrezko materiala eta laguntza aurkitzeko eta belaunaldien arteko tailerrak eta *handmade* egitea, pertsonen arteko harremana eta ezagutza-trukea sustatzeko. Eta eginez ikasteen oinarrituta sortzea; izan ere, ikaskuntza mota horrek, sendotu ez ezik, aldez aurreko trebetasunak eta gaitasunak ezagutzea ahalbidetzen du.

---

### **La isla del tesoro en un espacio de conocimiento constructivista dentro de, y con, la biblioteca**

Hondarribia — *Gipuzkoa*

Ezagutza konstruktibistaren oinarrian pertsona dago, eta ikasteko tresnak ematen zaizkio, betiere erritmo pertsonalak errespetatuz. Teoria hori liburutegira ekartzen badugu, erabiltzailea izango da proiektu honen faktore nagusia. Liburutegian lehen gune bat sortu nahi dugu, laborategi bat, beste gune batzuekin osatzen dena; beste erakunde batzuekin lankidetzan. Liburutegia bere gune itxitik ateratzen da, eta gune itxia kanpotik ekartzen dena hartzeko irekitzen da. Premisa horretatik abiatuta, *Altxorraren uhartea* hartu eta deskonposatu egingo dugu, berriro osatzeko.

---

### **Escape room educativo en el aula: *Mindhackers*, guardianes de la red**

*Murtzia*

Mindhackers da *escape room* hezitzaile honen izenburua. Murtziako Eskualdeko Liburutegiko Komiktekak dagoeneko abian jarri zuen, eta harrera ona izan zuen. Proiektu honek laborategiko deialdi honen bidez beste helburu eta publiko batzuetara egokitze aukera ematen du. Hasiera batean, zuzenean parte hartzen zuten Lehen eta Bigarren Hezkuntzako zikloetako ikasleei zuzenduta planteatu zen, Eskualdeko Liburutegiarekin streaming bidez konektatuta. Jolasaren probak maila bakoitzeko curriculum-educietan oinarritzen ziren, ikasgaietan eskuratutako ezagutzak aplikatzeko. Gainera, ikasleek beste trebetasun batzuk jarri behar dituzte praktikan, besteak beste, behatzeko gaitasuna, albopentsamendua eta talde-lana.

# Sarrera —hitzaldia



**Eulalia  
Pérez  
Sedeño**

Zientzia, Teknologia eta Genero Ikerketako irakaslea CSICeko (Espainia) Filosofia Institutuko Zientzia, Teknologia eta Gizarte Sailean, eta Logika eta Zientziaren Filosofiako katedraduna. Irakasle edo ikertzaile izan da Bartzelonako Unibertsitatean, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean, Cambridgeko Unibertsitatean (Erresuma Batua) eta Kaliforniako Unibertsitatean (Berkeley), besteak beste. Zientziarako eta Teknologiarako Espainiako Fundazioko (FECYT, 2006-2008) zuzendari nagusia izan da.

Gaur egun, CYTEDEk finantzaturako Iberoamerikako Zientzia, Teknologia eta Genero Sarea koordinatzen du. Sare hori 10 herrialdetako 100 ikertzailek baino gehiagok osatzen dute: Argentina, Brasil, Kolonbia, Kuba, Espainia, Guatemala, Mexiko, Paraguai, Uruguai eta Venezuela.

Antzinako zientziaren eta erakunde zientifikoaren historia ikertu du, baita zientziaren filosofia, zientzia, teknologia eta gizartea, zientziaren pertzepzioa eta komunikazioa eta zientzia, teknologia eta generoa ere.

Estatuko eta nazioarteko hainbat proiektutan parte hartu du, eta hainbat ikerketa-proiektu zuzendu ditu: *Ciencia y valores: el género en las teorías e instituciones científicas* (1996-1999, CICYTek finantzatua), *De las teorías científicas a la cultura y práctica científico-tecnológicas* (1999-2002, MCYTek finantzatua) eta *GENTEC: Género, tecnología y ciencia en Iberoamérica* (2002-2004, OEIk eta UNESCOk finantzatua).

# Laborategiko *taldea*

## Antolakuntza

### Liburutegien arteko Koordinaziorako Zuzendariordetza Nagusia

Laura Guindal  
*Liburutegien arteko  
Koordinaziorako zuzendariordea*

Susana Alegre  
*Koordinazio eta Lankidetz  
arloko burua*

Diego Gracia  
*Nazioarteko Lankidetz  
Zerbitzuko burua*

## Medialab Tabakalera

Arantza Mariskal  
*Medialab Tabakaleraren  
arduraduna*

## Aholkulariak

Arantza Mariskal  
*Medialab Tabakaleraren  
arduraduna*

Alicia Sellés  
*Liburutegien arloko aholkularia*


Oskar Hernández  
*Gizarte-ikertzailea eta liburuzaina  
Bartzelonako Unibertsitate  
Autonomoan*

Laila Sánchez  
*Citilabeko Kolaborategiko  
arduraduna (Cornellà de Llobregat)*

Lucía Santolaria  
*Proiektu-teknikaria  
(MUSOL Fundazioa)*

Mariana Cancela  
*Herritarren berrikuntza-programen  
kudeaketan aditua*

Nùria Pons  
*D'Alaior liburutegi publikoko  
zuzendaria (Alaior, Menorca)*



# Agenda

## Azaroa

\* Sarrera librea  
edukiera bete arte /  
Streaming.

---

### 15

2DEO \*

17.00

Inaugurazioa.

**Maria José Gálvez** —*Liburuaren  
eta Irakurketaren Sustapenerako  
zuzendari nagusia*

**Andoni Iturbe** —*Eusko Jaurlaritzako  
Kulturako sailburuordea*

17.30

Laborategiaren aurkezpena.

**Arantza Mariskal**

18.00

Sarrera-hitzaldia.

**Eulalia Pérez Sedeño**

18.45

Proiektuen aurkezpena.

**Diego Gracia**

---

### 16

Medialab Tabakalera

09:00—14:00

Lanaldia. Saio kritikoak  
aholkulariekin.

14:00—15:00

Bazkaria.

16:00—19:00

Lanaldia.

---

### 17

Medialab Tabakalera

09:00—14:00

Lanaldia. Saio kritikoak  
aholkulariekin.

14:00—15:00

Bazkaria.

16:00—19:00

Lanaldia.

---

### 18

2DEO

09:00—12:00

Lanaldia. Aukezpen-prestaketak.

12:00—13:00

Prototipoen aurkezpena. \*

13.00

Amaiera. \*

**Edurne Ormazabal** —*Tabakalerako  
zuzendari nagusia*

**Laura Guindal** —*Liburutegien  
arteko Koordinaziorako  
zuzendariordea*

